



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko uztailaren 1a

94. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindegabea ordaintzekoa. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoa handitzeko proposamen bat aurkezte eta eztabaidatze aldera hezkuntza erkidegoan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan zehazte aldera zeintzuk diren “Agenda 2030” izenekoak dakartzan erronkei aurre egiteko aplikatzen ari diren politikak, programak eta jarduketak. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten du Europar Batasuneko bandera paratzea bere egoitzaren fatxadan eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilero igor ditzan Osasun Departamentuaren aginte-koadroak, eta programazio ekonomikokoak eta aurrekontu-kudeaketakoak. Sergio Sayas López jaunak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aurkez ditzan irakasleen aurkako erasoei buruz egindako analisisia eta arazoari aurre egiteko neurriak. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez babesa ematen baitzaio heldu den uztailaren 15ean Iruñetik aterako den karabanari, zeinak helburu baitu Europar Batasunaren migrazio arloko politikak salatzea. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak handitzeari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denborari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako orientazio-lanpostuak esleitzeko baremoari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Maila Ertaineko, Oinarrizko LHko eta LH Bereziko ikasleen eskola-orientazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Lanbide Heziketan eskola-orientaziorako baliabideak gutxitzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Gendulaingo UPSko hirigintza esparruko 1., 2. eta 3. exekuzio-unitateak birzatatze proiektuen izapidetzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak espetxe arloko eskumenak bere gain hartzeko aurreikusituen jarduketei buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, trafiko arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, Enplegu Planari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, langabezia dauden pertsonen eskubideari buruzkoa, egoki laneratu daitezkeen lortzeko lanbide-orientazio pertsonalizatua jasotzeko. Galdera erretiratzea (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Kultura-plan Estrategikoa prestatzeko egindako jarduketei buruzkoa. Galdera erretiratzea (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Foru Lege proposamena, langile publikoei 2012an etendako aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea ordaintzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen 2016ko maiatzaren 19ko Osoko Bilkuran, zeinaren bidez ezarri baitzen Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileek 2012ko aparteko ordainsariaren parte ordaindugabea kobratuko zutela 2016ko uztailaren 1a baino lehen, Espainiako gainerako administrazio publiko guztietako langileek bezala.

2016ko apirilaren 19an –asteartea baitzen–, Espainiako Gobernuak iragarri zuen Estatuko Administrazioako langileek apirilari dagokion nominan berreskuratuko zutela kendutako aparteko ordainsaritik falta zena.

Onartezina da Foru Komunitateko langileak Espainiako gainerako langileak baino egoera okerragoan egotea; halakorik ez da Nafarroan inoiz gertatu.

Ikusita Nafarroako Gobernuak ez duela Parlamentu honek onetsitako mozioa bete, UPNren parlamentu-taldeak honako foru lege proposamen hau aurkezten du.

### **Artikulu bakarra.**

Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren lehen bost egunetan ordainduko du 2012an langile publikoei kendutako aparteko ordainsaritik ordaindu gabe dagoen parte.

### **Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoa handitzeko proposamen bat aurkezte eta eztabaidatze aldera hezkuntza erkidegoan.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurriak har ditzan, San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoa handitzeko proposamen bat aurkezte eta eztabaidatze aldera hezkuntza erkidegoan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoa handitzeko proposamen bat hezkuntza erkidegoan aurkezte eta eztabaidatze aldera.

Nafarroako Parlamentuaren Hezkuntza Bartzordeak San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikora

2016ko ekainaren 15ean egindako bisitan, bertan ginen parlamentu-talde guztien ordezkariok ikusi ahal izan genuen ikastetxe horrek, arrazoi desberdinak tarteko, bere egitura eta instalazioak handitu beharra daukala, bere hezkuntza-premiei aurre egingen badie. Zehazki, San Adriango Udalak egin eta ikastetxeko zuzendariak helarazitako balorazio-oroitidazki batean ikusi ahal izan genuenez, eraikin berri bat eraiki beharra dago Haur Hezkuntzaren egungoaren ondoan, helburu nagusi batekin: 2017-2018 ikasturtean espazioari dagokionez gertatuko diren gabeziak arintzea.

Hezkuntza-erkidegoaren ustez (zuzendaritza-taldea, Udala eta familiak), Haur Hezkuntzako egungo eraikinari beste eraikin bat atxiki lekieke, ikastetxea handitzeko premiari erantzunen liokeena; izan ere, herriak 6.200 biztanle ditu une honetan, eta aurreikusita dago presio demografikoa areagotuko dela eta biztanle-kopurua arian-arian eta etengabe handituko dela, nekazaritzako elikagaien sektoreak langileak behar dituelako bere enpresetarako. Ohargarria da jatorri soziokultural ezberdinetako pertsonen ehuneko handi samar batek eskolatzen dituela bere seme-alabak ikastetxean, hainbeste non ikasleen % 30ek baitauzka hezkuntza-premia bereziak, jatorri kultural ezberdin bat izateagatik edo berandu eskolatzeagatik.

Egoera demografiko hori dela-eta, areagotze bat aurreikusten da hurrengo hiru urteetarako, eta zioen azalpen honetan aipatutako ikasturterako igoera handiago bat espero da. Eskatutako instalazio horrek orobat murriztuko ditu Haur Hezkuntzako ikasleek, batez ere A ereduok, euskarako ikasketak egiteko egiten dituzten joan-etorriak, bai eta Haur Hezkuntzako ikasleen jolas-ordurako joan-etorriak ere; izan ere, heldu den ikasturtetik aitzina Haur Hezkuntzako eraikina utzi beharko dute (eraikin horri atxiki nahi zaio eraikin berria),

eta Lehen Hezkuntzako eraikiner pasatuko dira, ikastetxeko zuzendariak azaldu zuenaren arabera.

Kontuan hartu beharra dago San Adriánen bazegoela orain dela zenbait urte titulartasun pribatuko beste ikastetxe bat; hori dela-eta, egungo hezkuntza-azpiegituraren plangintza egungo matrikulaz bestelako ikuspegi baten arabera zen, desagertutako ikastetxe hori hartzen baitzuen kontuan. Ikastetxean, halaber, frantsesa eta alemana irakasten dira, Ingelesez Ikasteko Programa emateaz gain; hartara, komeni da ikastetxeen eta espazioen plangintza egoki bat egitea, eta horregatik, ikastetxea handitzea lehen mailako baliabide didaktikotzat jotzen da.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko Hezkuntza Azpiegitura Zerbitzuak badaki zein den eraikin eta hezkuntza-espazio horien egoera, bai eta eraikina inauguratu

zenez geroztik bertan ez dela muntako inbertsiorik egin. Ohargarriak dira, aldiz, San Adriango Udalak egindako jarduketak, udalaren titulartasuneko zerbitzu ludiko eta pedagogikoak –esate baterako, ludoteka– mantendu eta sortzekoak.

Horregatik guztiagatik, uste dugu iritsia dela San Adriango ikastetxe publikoko hezkuntza-erkidegoaren eskariari erantzun bat emateko unea, eta horregatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan San Adriango Haur Hezkuntzako "Alfonso X El Sabio" ikastetxe publikoaren egungo Haur Hezkuntzako eraikina handitzeko behar diren aurretiazko izapide guztiak.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan.**

*GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez gobernu zentrala premiatzen baita Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, indarra duen Erregelamenduaren 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Berriki, Alderdi Karlistako idazkari federal Jesús María Aragón Samanes jaunak Parlamentu honi laguntza eskatu dio 1976an Jurramendin gertatutakoari buruzko dokumentazioaren desklasifikazio ofiziala lortzeko eta, era horretan, behin betiko argitzeko noraino inplikatu zen Estatua Aniano Jiménez eta Ricardo García Pellejerori bizia kendu zien krimenean.

Aipatu eskarian adierazten zenez, Jurramendi-76ko erailketen 40. urteurrenari begira hainbat jarduketa egin dira, asmo izanik, alde batetik, gertaera tamalgarri haiek gogoratzea eta bizi izan ez zituztenei ezagutaraztea eta, azken finean, Estatuko segurtasun indar eta elementu batzuen jarduketa salatzea, bertan egon baina gertaera horiek

ekidin ez zituztelako eta, areago, utzi zutelako armak erakuts zitezen eta, halaber, Jurramendiren gailurrean bi metrailadore habi ezar zitezen. Gainera Auzitegi Gorenak (eta Auzitegi Nazionalak lehenago ere bai) deklaratu zuen egintza haiek delitu politikoak zirela, halako moldez non erantzukizun penalaren azkentzea aplikatzen ahalko baitzitzaien, Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Errege Lege-dekretua aplikatzea tarteko; horren ondorioz, zigorgabetasuna lortu zuten.

2003ko azaroaren 5ean Auzitegi Nazionalako administrazioarekiko auzien salak emandako epaira arte ez zen lortu hein bateko ordaina, gertakarien bi biktimek terrorismoaren biktimei dagozkien kalte-ordainak jasotzeko eskubidea zutela deklaratu, eta baliogabetu zuena aipatu kalte-ordainak ukatu zizkien Barne Ministerioko idazkariordearen 2001eko uztailaren 17ko ebazpena, ministroaren eskuordetzaz emana.

Gainera, nahiz eta aipaturiko inplikazioa gertatu zela uste orokorra izan, ebidentzia ugari –leku-koenak zein grafikoak– egon, eta horiek oihartzun mediatiko handia lortu, ia ez da agertu gertaera horiek esplizituki aipatzen dituen dokumentu ofizialik.

Kazetaritzako ikerketen eta informazio guztien arabera 1976ko “Operación Reconquista” delakoa seinalatzen dute, karlismo ofizialari –frankismoarekin oso kritikoa baitzen– izen ona kentzera bideraturiko estrategia politiko bat izaki. Asmoa zen Carlos Hugoren Sixto anaia txikiaren inguruan sektore disidente guztiak elkartzea eta Carlos Hugoren jarraitzaileei mugimendu karlista nagusiaren kontrola ebastea, eta horrela Jurramendiko ekitaldiak ere kontrolatzea. Lizarrako mendiko ekitaldiak nabarmen bihurtu ziren frankismoaren aurkako plataforma, babesa lortu zuena karlismotik kanpoko talde gehiagorengandik, Espainiako Estatu osorako demokrazia aldarrikatuz.

José Antonio Sáenz de Santa María Guardia Zibileko jeneralak, gertaeren garaian Guardia Zibilaren Estatu Nagusiko buru zenak eta Trantsizioan itzal handiko pertsona izan zenak, hil aurretik ezagutzera eman zuen Estatuak berak, karlismoaren bilakaera ikusita, bilatu zuela “kontrabotere” bat sortzea Sixto Borboikoaren irudiaren inguruan. Horretarako, SECED inteligentzia-zerbitzua erabili zuen, Carrero Blanco almiranteak sortua (1977an CESIDek ordeztu zuen, zeina CNI baita gaur egun), eta Guardia Zibila ere bai.

Hasieratik, “Operación Reconquista” delakoak izaera militarra izan zuen, eta horrez geroztik ateratako lekukotasunak kontuan hartuta, 1976ko maiatzaren 9an parte hartu zuten taldeak zerbitzu

sekretuek (garai hartan SECED, Servicio Central de Documentación) eta Guardia Zibilak armatu zituzten.

Benetako sarraskia izatetik gertu egon zena lehen mailako eskandalu politiko bihurtu zen, bi arrazoirengatik.

Lehenbizikoa izan zen erasotzaileen artean atzerriko militante ultraeskuindar ugari agertzea. Batez ere italiarrak eta argentinarrek ziren, batzuk Ordine Nero, Ordine Novo, Avanguardia Nazionale edo Triple A (Alianza Anticomunista Argentina) bezalako talde terroristekin lotuak. Haietako batzuk Italiako Gobernuaren akusaziopean zeuden, dozenaka hildako eragin zituzten atentatuak egitea leporatuta; eta orain Espainiako lurraldean ikusiak ziren, kontzentrazio politiko bat indarkeriaz eta zigorgabeki desegiten saiatzen.

Kolpea indartzeko, operatibo bat antolatu zen: karlismoan gutxiengoa zuen Comución Tradicionalista alde ultraeskuindarreko Espainia osoko kideak eraman ziren, bai eta Guerrilleros de Cristo Rey taldekoak, falangistak, Unión Nacional Española-UNEko militanteak –Fernández de la Mora ministro ohi frankistaren alderdia–, eta komando bat, 20tik gora italiar eta argentinar mertzenario ultraeskuindarrek osatua –haien artean Jean Pierre Cherid frantsesa ere bazegoen–, erromeriara joan eta bertan parte hartzen zutenei eraso egiteko. Mertzenarioei, kazetari-informazio gehienaren arabera, SECEDeko agenteek ordaindu zieten, edo haiek kontratatatu zituzten Guerrilleros de Cristo Rey taldeko buruzagiek.

Bigarrena izan zen segurtasun indarren erabateko pasibotasuna, Guardia Zibileko eta Polizia Armatuko kide ugari egon arren. Liskarrak eta hildakoak izan zirenean baizik ez zen Guardia Zibila bi aldean artean jarri, hildako gehiagorik egon ez zedin. Baina, nahiz eta jende orok ikusi nork egin zuen tiro, ez zuten inor atxilotu.

Manuel Fraga Iribarne orduko Gobernazio ministroa Espainiatik kanpo zegoen, bidaia ofizialean, eta gertatuaz desaxolatu egin zen. Gobernuak, bere aldetik, bere arduratik kanpoko borroka fratrizida bezala aurkeztu zuen gertaturikoa. Ez zen inoiz ikerketa seriorik egin. Ikerketa judiziala, ebidentzia grafiko ugari eta ukaezinen ondorioz abiatuta, laster asko itxi zen –gorago esan den bezala– Amnistiaren legea aplikatuz, eta Estatu krimen hura ez zen inoiz erabat argitu.

Alderdi Karlistak eta nafar gizarteak, oro har, egia argitu dadila nahi dute, eta jakin dadila zein izan zen Estatuko segurtasun indarretako pertsona eta elementuen benetako parte hartzea, hala egintzen prestaketan nola haien jazarpenaren

ez egitean. Gogora dezagun Sixto Borboikoa, hiltzaileen buru agertzen zen pertsona bazen ere, Lizarrako epaileak deklaratzeko zitazioa egin zionean atxilotua izan ordez mugara eraman zutela, eta geroago ere Espainiara etorri zela, eta are agerpen publikoak egin ere, inolako eragozpenik gabe. Era berean, jakin behar da operazio hura eta beste batzuk finantzatzeko funtsen jatorria zein den; ez baitugu ahaztu behar noiz gertatu ziren: besteak beste, Gasteizko erailketak izatetik gutxira.

Gertakari horiek argitzeko eta haien benetako memoria eta ordaina eskatzeko, beharrezkoa da Estatuko Administrazioan dauden “aferra, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu” guztiak desklasifikatzea; hain zuzen ere, horretarako esku-

mena duen administrazioak, Gobernu Zentralak alegia, egiten ez duen zerbait.

Horregatik guztiagatik,

Nafarroako Parlamentuak Gobernu Zentralean premiatzen du, Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1978 Legean –urriaren 7ko 48/1978 Legeak aldatutakoan– ezarritakoarekin bat, behar den erabakia har dezan, Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden aferra, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko, 1976ko maiatzaren 9ko gertaeren aurrekoak zein geroak.

Iruñean, 2016ko ekainaren 21ean

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Adolfo Araiz Flamarique, Laura Pérez Ruano eta José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan zehazte aldera zeintzuk diren “Agenda 2030” izenekoak dakartzan erronkei aurre egiteko aplikatzen ari diren politikak, programak eta jarduketak.**

*GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan zehazte aldera zeintzuk diren “Agenda 2030” izenekoak dakartzan erronkei aurre egiteko aplikatzen ari diren politikak, programak eta jarduketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2015eko irailaren 27an Nazio Batuetako Batzar Orokorrek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko xedez. Agenda horrek 17 helburu ditu, eta 169 xede, baita aitortzen dituen politikak ere.

Nazio Batuetako Estatu Kideek onartutako ebazpenean aitortzen da gaur egungo munduak duen erronkarik handiena pobrezia –bere forma eta tamaina guztietan– desagerraraztea dela eta, bertan esaten denez, ez da garapen iraunkorrik izanen hori lortzen ez baldin bada.

NBEk onartutako agenda hori, hain zuzen ere, 2016-2030 aldirako nazioarteko garapen-agenda nagusia da, eta erreleboa hartu die 2000. urteaz geroztik indarrean ziren Milurteko 18 Garapen Helburuei. Gainera, unibertsetan da eta, horregatik,

herrialde guztietan aplika daiteke, “garatuak” deiturikoak barne.

Garapen Iraunkorreko 17 Helburuek pobrezia desagerrarazteko mundu-mailako tresna izan nahi dute, baita desberdintasunak eta urrakortasunak murrizteko ere, giza garapen iraunkorraren paradigmapean. Horregatik, iraunkortasunaren alda-gaia txertatu du giza garapenean. Arlo ekonomikoa, soziala eta ingurumena biltzen ditu Agendak, eta hiruretan ere eragin nahi du, ikuspegi integral batekin jokatzuz. Estrategia berri honek mundu-mailako garapen-programak gidatu beharko lituzke datozen 15 urteetan, eta bat egin duten estatuek beharrezkoak diren baliabideak jarri beharko lituzkete estrategia gauzatzeko, lehentasuna bereziki sektorerik pobreenen eta zaurgarrienen beharrei emanez.

Estatuek onartutako ebazpenak dioenez, honakoak dira, besteak beste, helburuak: “2030 bitarteko epean mundu osoan pobrezia eta gosea desagerraraztea; herrialdeen arteko eta herrialdeetako barruko desberdintasunei aurre egitea; gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak eraikitzea; giza eskubideak babestea; generoen arteko berdintasuna eta emakumeen nahiz nesken ahalduntzea sustatzea; eta planeta nahiz beraren baliabide naturalak modu iraunkor batean babestea.”

Agendak biltzen dituen helburuak indarrean daude ofizialki 2016ko urtarrilaren 1aren geroztik. Honakoak dira 17 helburu edo arloak:

1.- Pobrezia desagertzea; 2.- Goserik ez izatea; 3.- Osasuna eta ongizatea; 4.- Kalitate oneko hezkuntza; 5.- Genero berdintasuna; 6.- Edateko ura eta saneamendua; 7.- Energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea; 8.- Lan duina eta hazkunde ekonomikoa; 9.- Industria berrikuntza eta azpiegitura; 10.- Desberdintasunak murriztea; 11.- Hiri eta komunitate iraunkorrak; 12.- Ekoizpen eta kontsumo arduratsua; 13.- Klima babesteko ekintza; 14.- Uretako bizitza; 15.- Lehorreko bizitza; 16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak; 17.- Itunak, helburuak lortzeko.

Agendak, horrenbestez, helburu garrantzitsuak ezarri ditu, eta horiek betez gero munduak berak beste tankera bat izanen luke. Bistakoa da, noski, erroka ez dela batere erraza, eta gaur egun indarrean diren eredu, ikuspegi, politika eta interes kontrajarriek biziki zailduko dutela helburu horiek denak eskuratzea. Dokumentuaren osaketan bertan interes eta ikuspegi horien arteko tentsioa agertu da, eta dokumentuaren erredakzioan bertan ere horren isla suma daiteke.

2030 Agendaren irakurketa kritiko bat egin daiteke eta, are gehiago, egin behar da. Kontraesanak eta zalantzak ere baditu dokumentuak, eta horrek ere hainbat galdera uzten dizkigu irekita, erantzun bat beharko dutenak. Dokumentua osatu zen garaian, erakunde publikoek eta gizarte zibilak gainera, enpresa-munduko sektore pribatuak ere esku hartu zuen, korporazio eta konpainia multinazionalak ere indar egin zuten, eta horrek ere eragin du azkeneko emaitzan. Bestalde, hainbat gizarte eragilek aipatu duenez, iraunkortasunaren eta hazkundearen arteko erlazio gatazkatsuari ez zaio irtenbide koherente eta argi bat eman; “erantzukizun partekatua baina ezberdindua” printzipioa ez dago behar bezala jasoa; gizarte zibilak eta gobernu batzuek egindako zenbait proposamen kanpoan gelditu ziren, gobernantzari buruzkoak edo gardentasun fiskalari buruzkoak esate baterako...

Baina 2030 Agendak izan litzakeen kontraesanen, erantzun zehatzik gabeko galderen eta hutsune guztien gainetik, eta kontuan izanda ez duela dokumentu itxi eta bukatua izan behar, tresna dinamiko bat baizik, merezi du Agendak planteatzen dituen errokeni aurre egiteko ahalegina egitea, eta ahalegin hori sistematikoa, ordenatua eta planifikatua izatea.

Hori bera da, hain zuzen ere, 2016ko ekainaren 7an Garapen Jasangarriko Helburuei buruz Nafarroako Parlamentuan egindako Parlamentu Irekian gizarte eragileek egin zuten proposamen zehatza. Jardunaldi horretan 2030eko Agendaren inguruko gogoeta eta azterketa egin zen, eta gizarte eragileek, Gizarte Entitateen Plataformaren bitartez, plangintza egonkor bat eskatu zieten, hitzez hitz, Nafarroako Erakunde Publikoek. Plangintzarekin batera, behar beste baliabidez hornitutako estrategiak eta politikak eskatu zituzten, baita heziketa-, informazio- nahiz sentsibilizazio-neurriak ere, eta politika horietan eta horien segimenduan gizarte zibilaren egitekoa aitortzea.

Parlamentu Irekian Nafarroako Erakunde Publikoek egin zitzaizen eskaera zehatza kontuan izanda, egokia da erakundeek eskaera horri eustea eta dagozkien urrats zehatzak egitea. Ez da, noski, hutsetik hasiko den lana, gaur egun Nafarroako erakundeak –Gobernua nahiz Udalak– 2030 Agendak marrazten duen ildoan doazen hainbat politika eta ekintza egiten ari direlako; ingurumenean, landa garapenean eta eskubide sozialetan, esate baterako. Politika horiek, nolana ere, beste hainbat jarduerarekin osatu eta aberastu daitezke eta, halaber, ikuspegi integrala eskainiko duen plan edo programa baten barruan koka eta ordena daitezke, betiere politika, progra-



ma, plan eta jarduera horiei guztiei koherentzia emateko, optimizatzeko eta eraginkorrago bihurtzeko helburuarekin.

2030 Agenda Estatuak sinatu zuten, eta haien egitekoa da konpromisoak gauzatzea; baina Estatuaren mailaren azpiko erakundeek ere badute 17 helburu horien ildoan lan egiteko aukera, eta egokia da hala egitea. Badira urrats hori era planifikatua egiten ari diren erakundeak, eta horietako bat –Valentziako Generalitatea hain zuzen– Nafarroako Parlamentu Irekira etorri zen, bere ibilbidea eta programa azaltzera eta erakustera. Eredu hori eta beste batzuk egon badaude, nahi izanez gero haien esperientzia eta haiek ikasitakoa baliatzeko.

Aurreko paragrafoetan esandako guztia kontuan izanda:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: egin dezala azterketa bat, argitzeko zein diren, dagozkion eskumenen esparruan, Nafarroako Gobernuak indarrean dituen politikak, programak eta jarduerak, 2030 Agendak dakartzan konpromisoak aurre egiteko. Azter dezala, halaber, zein diren ildo horretan abian jarri beharko litzuzkeen politikak, programak eta jarduerak.

2. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: 2030 Agendak dakartzan konpromisoak aurre egiteko indarrean dauden eta abian jarri beharko liratekeen politiken, programen eta jardueren azterketa egin ondoren, ikuspegi orohartzailea eta zeharkakoa izanen duen ekin-tza-plana diseina eta abian jar dezala.

3. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: 2030 Agendak dakartzan konpromisoak aurre egiteko gauzatzen diren politika horien guztien segimendu estua eta eraginkorra egin ahal izateko, adierazle sistema argi, zehatz eta eraginkor bat presta eta abian jar dezala.

4. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Nafarroako Gobernuak 2030 Agendak dakartzan konpromisoak aurre egiteko eginen duen lana gizarte eragileekin uztar eta koordina dezala, Agendak berak planteatzen duen moduan.

Iruñea, 2016ko ekainaren 20a

Foru parlamentariak: Unai Hualde Iglesias, Dabid Anaut Peña, Rubén Velasco Fraile eta José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten du Europar Batasuneko bandera paratzea bere egoitzaren fatxadan eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan.**

### *IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak onesten baitu Europar Batasuneko bandera paratzea bere egoitzaren fatxadan eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bidez Parlamentuak erabakitzen baitu Europar Batasuneko bandera paratzea bere egoitzako fatxadan eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan.

Iragan martxoaren 18an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki zuen –hiru boto alde, bi aurka– Europar Batasuneko bandera kentzea bere egoitzako fatxadatik eta Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetatik. Erabilitako argudioa izan zen Legebiltzarrak arbuiazen zuela Europar Batasuneko estatuburu eta gobernuburuek Turkiako gobernuarekin sinatutako akordioa, Turkiako lurraldetik Europar Batasunera sartutako beste herrialde batzuetako errefuxiatuak itzultzekoa.

Bandera urdina Europaren batasunaren eta identitatearen sinboloa da. Autonomia erkidegoetako erakundeetan ez da derrigorrez paratu behar, baina hogeita hamar urte daramatza Parlamentuan eta Nafarroako gainerako erakundeetan; halatan, aspalditik dauka berezko izaera herritarren artean.

Ulertu beharra dago Parlamentuaren gehiengo bat beste erakunde politiko batzuen erabaki politi-

ko baten aurka egotea ezin dela inolaz ere adierazi sinbolo instituzional eta identitario bereki bat kenduta. Bandera kentzea neurri bidegabe eta segregatzaile bat da, gure identitatearen parte baten eta gure ordezkari ere badiren erakunde batzuen bazterketa sinbolikoa adierazten duelako.

Europar Batasuneko bandera, hortaz, ez zaio arrotza Nafarroari. Gurea da, Europar Batasuneko gainerako erakundeena den bezala. Espainia 1986an Europako Erkidegoetan sartu izanak Nafarroako herritarren urte luzeko desio bati erantzun zion. Hogeita hamar urte geroago, nafar askok nafar bezain europar jotzen dugu geure burua. Gure kultura eta, hortaz, gure identitatea, gure iragana eta eta gure oraina, ulertezin lirateke Europatik kanpo. Gure ekonomia ere zeharo integratuta dago Europaren testuinguruan. Halatan, Nafarroako enpresen esportazioen % 70-75 inguru Europar Batasuneko herrietara egiten da. Zenbait sektoretan –adibidez, nekazaritzako produktuenean– portzentaje hori % 80tik goitikoa da. Gainera, gure erkidegoak bostehun milioi euro baino gehiago egiten duten funtsak jaso ditu 1986az geroztik Europar Batasunarengandik, eta zenbateko horri beste laguntza batzuk gehitu behar zaizkio; esate baterako, Erasmus programara edo mugaz gaindiko proiektuetara bideratutakoak.

Horregatik aurkezten dugu erabaki proposamen hau:

1. Parlamentu honek onesten du Europar Batasuneko bandera etengabe paratzea bere egoitzaren fatxadan nahiz Legebiltzarreko gainerako leku ofizialetan, Nafarroaren nortasun europarraren eta bertako gizartearen europazaletasunaren erakusgarri.

2. Parlamentu honek bere konpromisoa adierazten du –Kontseilu Europarraren, Europar Batasuneko Kontseiluaren edo Europako Batzordearen erabaki politiko zehatz batzuekiko unean uneko desadostasunak gorabehera– Europar Batasun demokratiko, kohesionatu, anitz, ireki eta solidario bat eraikitzearekin.

3. Parlamentu honek Nafarroako Gobernuak premiatzen du ekitaldiak eta ekimenak bultzatzen eta programatu ditzan, Nafarroako herritarren artean sentimendu europazalea sendotzen laguntzeko eta herritarren artean Europar Batasuneko era-

kundeen, haien funtzionamenduaren eta haietarako sarbidearen gaineko ezagutza areagotzen laguntzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilero igor ditzan Osasun Departamentuaren aginte-koadroak, eta programazio ekonomikokoak eta aurrekontu-kudeaketakoak.**

### *SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hilero igor ditzan Osasun Departamentuaren aginte-koadroak, eta programazio ekonomikokoak eta aurrekontu-kudeaketakoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernua premiatzen duena hilero igor ditzan Osasun Departamentuko aginte-koadroak eta programazio ekonomikokoak eta aurrekontu-kudeaketakoak.

Gardentasunak presente egon behar du gobernu ororen jardunean, hori baita modurik argiena zera erakusteko, publikoa dena denona dela eta, hortaz, denek dutela eskubidea jakiteko nola kudeatzen den publikoa dena; bereziki, Gobernuaren kontrolatzeko eginkizuna esleiturik daukagunok; hau da, parlamentariok.

Aginte-koadroak funtsezko tresna bat dira Nafarroako Gobernua egiten ari den kudeaketa kontrolatzeko, informazioa ematen baitute baliabideen erabilerrari eta baliabide horiei ematen zaizkien erabilera-moldeei buruz.

Gobernuari hilero eskatu dizkiogu tresna horiek informazio-eskarien eta galdera idatzien bidez, eta horiek talka egin dute Gobernuaren dokumentu horiek ez bidaltzen saiatzearekin; hartara, Parlamentu honen kontrol-lana eragotzi egin da.

Hortaz, parlamentu-talde guztiok hilero egin ahal izan dezagun Nafarroako Gobernuaren kudeaketaren eta erabaki operatiboen jarraipena, honako puntu hauek onestea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Gobernuak parlamentu-talde guztiei hilero igorriko die Osasun Departamentuko aginte-koadroei buruzko informazioa, giza baliabideen gaineko informazio xehakatuarekin (ekonomikoaz gain, langile-kopuruaren gainekoa ere bai), datu errealekin eta itxiera-aurreikuspenarekin, laguntza-maila guztietako eta laguntza espezializatuko espezialitate guztietako laguntzari buruzko informazioarekin; bai jarduerari buruz (aurreko aldiekin konparatuta), bai itxarote-zerrendeiei buruz. Halaber, informazio klinikoa emanen du, ospitalez ospitale adierazia, bai eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza guztien kudeaketari buruzko informazioa ere, eriaeren arretarako unitatea, oinarrizko osasun-laguntza eta osasun mentala barne.

2. Nafarroako Gobernuak parlamentu-talde guztiei hilero igorriko die aginte-koadroa, programazio ekonomikoaren arloko itxiera-datuekin eta aurrekontu-erabilgarritasunekoekin.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako hezkuntza sistemaren indargune garrantzitsuenetako bat da Lanbide Heziketako ikasketan duen maila bikaina. Gure foru komunitatean, LH apustu estrategiko bat izan da, gure gizarte-eredua eraldatzea ahalbidetu duena, pertsonen kualifikazioaren eta ezagutzaren bidez industria-sare sendo bat sortuz aberastasuna, enplegua eta gizarte-ongizatea ekarri dituena.

Azken urteotan aldaketa garrantzitsua ikusten ari gara eskola-testuinguruetan. Immigrazioaren gorakada, familien baldintza sozioekonomiko gogorragoak, hezkuntza-arreta berezia behar duten nahasmenduak antzemateko eta diagnostikatzeko sistemaren hobetzea eta gisako beste faktore batzuen ondorioz, arazo pertsonal, familiar eta sozial nabarmenak dituzten taldeak sortzen ari dira, ikastetxeetan baliabide espezializatu gehiago egon daitezkeen behartzen dutenak.

Egoera hori are larriagoa da Lanbide Heziketako ikastetxeetan, derrigorrezko irakaskuntzetatik datozen ikasle asko hartzen dituztelako. Berriki ezarri den Oinarrizko Lanbide Heziketak biltzen dituen ikasleen artean ikaskuntza-arazo nabarmenak izaten dira, baina hezkuntza sistemarekiko moldagabeziakoak ere bai.

Bestalde, erdi mailako heziketa zikloetan ditugun ikasleen tipologiak ez du inongo zerikusirik orain dela urte batzuetakoarekin. Gaur egun, haiek gehienak dira DBHa curriculum aniztasunaren bidez gainditu duten neskek eta mutilak, Baxilergoan porrot egindako saio batetik datozenak edo Oinarrizko Lanbide Heziketatik etorritakoak.

Egoera horren isla da Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasten ari diren ikasle askok hezkuntza-premia bereziak izatea. Aski da egiaztatzea Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetako edozeinetan dozenaka ikaslek dutela nahasmenduren baten diagnostikoa, minusbaliotasun fisiko eta psikikoetatik hasi eta TFHAraino; eta gainera, faktore sozioekonomikoen ondoriozko arrisku egoeran dauden ikasleen kopurua lehenago aipatutako ikasleen kopuruaren bikoitza izaten da ikastetxe gehienetan.

Egoera horien aurrean, begi-bistakoa da Eskola Orientazioak Lanbide Heziketan eginkizun duen lana. Ukatzea garapen pertsonal eta sozialean lagundu beharra, ikastetxeentzako eta bertako irakasleentzako aholkularitza psikopedagogikoa, Gizarte Ongizate, Buru Osasun, Epaitegietako eta Adingabeen Fiskaltzako elementuekiko koordinazioa eta lana, tutoretza- eta bizikidetzaren eraginkorren diseinu, laguntza eta jarraipena, bai eta familiekiko tratua, harreman eta laguntza, erabat zentzugabea da, bai eta bidegabekeria nabarmena ere, laguntzaren behar handiena dutenekiko.

Hala ere, hori bide da Hezkuntza Departamentuaren asmoa, Lanbide Heziketan, orientazioko profesionaleri dagokienez. 2016-2017 ikasturterako langile kopurua jaitsi egin da, oro har, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, aplikatu den baremoa erabat desegokia delako ikasle horien beharrei erantzuteko, zalantzarik gabe ikasle multzo ahulena baita, babes, laguntza eta jarraipen behar handiena duena.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du handitu dezan Nafarroako Lanbide Heziketako

ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aurkez ditzan irakasleen aurkako erasoei buruz egindako analisisia eta arazoari aurre egiteko neurriak.**

### *ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita aurkez ditzan irakasleen aurkako erasoei buruz egindako analisisia eta arazoari aurre egiteko neurriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldearen ekimenez, Hezkuntzako kontseilariak eta AFAPNA, ANPE eta APS sindikatuen ordezkariak agerraldia egin dute Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean, irakasleek eta administrazioako eta zerbitzuetako langileek Nafarroako zenbait ikastetxetan batzuetan pairatutako eraso hitzetakoak eta fisikoak direla-eta sorturiko egoerak aztertzeko.

Gertakari isolatuak diren arren, arloan zeresana duten eragile guztien konpromisoarekin jorratzen jarraitu behar da auzia, eta bera minimizatzeke eta, ahal baldin bada, desagerrarazteko neurriak ezarri behar dira.

Hainbat proposamen egin ziren, eta parlamentu-talde guztien babesa lortu zuten. Hezkuntza Departamentuak berak aitortu du auziari buruzko analisi bat eginen duela, eta analisi hori urte amaierarako prest eduki nahi duela. Horren guztien asmoa da gisa horretako egoera bizi duten irakasleek oso argi izatea nora jo behar duten eta zer baliabide dauzkaten eskura, laguntza juridikoa izatea, osasun-kalteak prebenitzea, eta abar.

Parlamentu-talde guztiak, sindikatuak eta Hezkuntza Departamentua bat etorri ziren esatean gizartea kontzientziatu beharra dagoela irakasleen lanari dagokionez, lan horrek akademikoki eta pertsonalki prestatutako belaunaldi berriak taxutzerakoan duen balioaz, egiten duten lanaren aitortzaz eta Nafarroaren aurrerabideaz denaz bezainbatean guri etorkizun hobea bermatzeko betetzen duten eginkizuna aitortzeaz, bai eta irakasleek beren lana baldintzarik egokienetan egitearen garrantziaz ere.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du abenduan aurkez ditzan, Legebiltzarrean, irakasleen aurkako erasoei buruz egindako analisisia eta arazoari aurre egiteko indartu edo ezarri nahi dituen neurriak.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du kanpaina instituzional bat egin dezan, irakasleek gizartean egiten duten lana eta guztiok zor diegun errespetua aitortzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez babesa ematen baitzaio heldu den uztailaren 15ean Iruñetik aterako den karabanari, zeinak helburu baitu Europar Batasunaren migrazio arloko politikak salatzea.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio heldu den uztailaren 15ean Iruñetik aterako den karabanari, zeinak helburu baitu Europar Batasunak dituen migrazio arloko politika kriminalak sala-

tzea eta elkartasuna adieraztea Europako mugetan ez atzera ez aurrera dauden pertsonei eta Greziako herriari ere, zeina, austeritate-politikek gogorki zigortua izan arren, elkartasun-eredua baita.”

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak handitzeari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Esan digutenez, Hezkuntza Departamentuak gonbit egin die Sarriguren IPan irailean A/G ereduetan matrikula egitea eskatu duten familiei Mendillorrira eraman ditzaten beren seme-alabak (Iruñeko ikastetxe batera, alegia, beste udalerrri batera). Kezkagarria da hori. Lehengo Nafarroako Gobernuak zioenez, Sarrigurenen sortutako 72 unitateekin, zeinen obrak 2016-2017 ikasturterako bukatuko baitziren, eskaria konponduta zegoen.

Egungo Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik legegintzaldi honetan Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen eraikinak handitzeko? Noiz? Posible al da hori, ikastetxearen alde horri esleitutako patiorako azalera hain txikia izanda?

Sarrigurengo bi ikastetxeak sortzeko akordioa formalizatzen denean, ikastetxe bakoitzari lerrokopuru zehatz bat esleituta eginen al da banaketa, ala bien artean zortzi lerro horiek hartzeko modua izan dezaten eginen al da?

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denborari buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denborari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta

hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denbora:

a) Urtez urte, 2010etik 2016ra, sexuaren arabera berezita.

b) Urtez urte, 2010etik 2016ra, familia-unitatea osatzen duten kideen kopuruaren arabera berezita.

c) Urtez urte, 2010etik 2016ra, nazionalak, etorkinak oro har eta egoera irregularrean dauden etorkinak berezita.

d) Denbora horretan garapen positiborik egon al da prestazioa jasotzen emandako denborari dagokionez?

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako orientazio-lanpostuak esleitzeko baremoari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako orientazio-lanpostuak esleitzeko baremoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak Lanbide Heziketan eskola orientazioa murriztea erabaki duela eta, honako galdera hau aurkezten dugu, idatziz erantzun dakion:

Zer irizpide teknikotan oinarritzen da Lanbide Heziketako ikastetxeetarako orientatzaile lanpostuak esleitzeko baremoa?

Corellan, 2016ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera



## **Galdera, Maila Ertaineko, Oinarrizko LHko eta LH Bereziko ikasleen eskola-orientazioari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Maila Ertaineko, oinarrizko LHko eta LH bereziko ikasleen eskola-orientazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak Lanbide Heziketan eskola-orientazioa murriztea erabaki duela eta, honako galdera hau aurkezten dugu, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak pentsatzen jarraitzen al du derrigorrezko hezkuntzako ikasleek baino arreta gutxiago jaso behar dutela Maila Ertaineko, Oinarrizko LHko eta LH Bereziko ikasleek, ikasketa horiek derrigorrezkoaren osteko ikasketa gisa katalogatuta egoteagatik?

Corellan, 2016ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Lanbide Heziketan eskola-orientaziorako baliabideak gutxitzeari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lanbide Heziketan eskola-orientaziorako baliabideak gutxitzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak Lanbide Heziketan eskola-orientazioa murriztea erabaki duela eta, honako galdera hau aurkezten dugu, idatziz erantzun dakion:

Nola justifika liteke orientazio arloko baliabideak gutxitzea, baldin eta LHko matrikulazioa oro har eta hezkuntza premia bereziko ikasleen kopurua nabarmen igo bada azken ikasturteotan, eta 2016-2017 ikasturtean handitzen jarraitzea aurreikusten bada?

Corellan, 2016ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Gendulaingo UPSko hirigintza esparruko 1., 2. eta 3. exekuzio-unitateak birzatzitzeko proiektuen izapidetzeari buruzkoa.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Gendulaingo UPSko hirigintza esparruko 1., 2. eta 3. exekuzio-unitateak birzatzitzeko proiektuen

izapidetzeari buruzkoa zen, eta 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak espetxe arloko eskumenak bere gain hartzeko aurreikusi dituen jarduketei buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Gobernuak espetxe arloko eskumenak bere gain hartzeko aurreikusi dituen jarduket

ketei buruzkoa zen, eta 2016ko ekainaren 3ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, trafiko arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera trafiko arloko eskumenak eskuratzeari buruz

koa zen, eta 2016ko ekainaren 3ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Enplegu Planari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Gárate andreak Enplegu Planari buruz aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera 2016ko ekainaren 10eko 84.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, langabezian dauden pertsonen duten eskubideari buruzkoa, egoki laneratu daitezen lortzeko lanbide-orientazio pertsonalizatua jasotzekoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen langabezian dauden pertsonen duten eskubideari buruzkoa, egoki laneratu daitezen lortzeko lanbi-

de-orientazio pertsonalizatua jasotzekoa, eta 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Kultura-plan Estrategikoa prestatzeko egindako jarduketei buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Gobernuak Kultura-plan Estrategikoa

prestatzeko egindako jarduketei buruzkoa zen, eta 2016ko maiatzaren 10eko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza